

## ISEI - IVEI

**B2. HEZIKETAKO GASTU PUBLIKOA, GUSTIZKO GASTU PUBLIKOAREN EHUNEKO BEZALA.**





**ISEI•IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

---

**Edizioa: 2018ko abendua**

**© ISEI•IVEI-k argitaratua**

**ISEI•IVEI-K ARGITARATUA**

Irakas-sistema Ebaluatuta eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

**LAN TALDEA**

Araceli de Francisco

Inmaculada Tambo

M<sup>a</sup> Paz Martínez

**KOORDINATZAILEA**

M<sup>a</sup> Paz Martínez

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA**

Eduardo Ubieta



## B2

### Heziketako gastu publikoa, guztizko gastu publikoaren ehuneko bezala.

HEZKUNTZAKO  
ADIERAZLEEN  
EUSKAL SISTEMA



<b>Sarrera</b>	<b>4</b>
<b>B2.1 taula eta grafikoak: Hezkuntzako gastu publikoaren bilakaera, guztizko gastu publikoaren ehuneko bezala. Milaka eurotan. Euskadi.</b>	<b>6</b>
<b>B2.2 taula eta grafikoa: Hezkuntzako guztizko gastuaren bilakaera funtzioen arabera Euskadin. (Ehunekoak).</b>	<b>7</b>
<b>B2.3 taula eta grafikoa: Hezkuntzako gastu publikoaren bilakaera, guztizko gastu publikoarekin alderatuta (finantza-atalak barne) Komunitate Autonomoetan. Ehunekoak.</b>	<b>8</b>
<b>B2.4 taula: Hezkuntzako gastu publikoaren bilakaera, guztizko gastu publikoarekin alderatuta (finantza-atalak barne) Komunitate Autonomoetan. Ehunekoak.</b>	<b>9</b>
<b>B2.4 grafikoa: Hezkuntzako guztizko gastu publikoaren bilakaera gastu publiko osoaren ehunekotan emanda, hezkuntzako maila guztietan (Haur Hezkuntza izan ezik), Europar Batasuneko 28 herrialdeetan. 2011 eta 2014 urteak.</b>	<b>10</b>



### HEZKUNTZA ERAKUNDEETAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOA, ETXEBIZITZETARA ETA ERAKUNDE PRIBATUETARA BIDERATUTAKO LAGUNTZAK BARNE (milaka euro), GUZTIZKO GASTU PUBLIKOAREN EHUNEKOTAN EMANDA.

Adierazle honek erakusten du gobernuek, guztizko gastu publikotik, hezkuntzako partidara bideratzen duten ehunekoaren bilakaera (milaka euro).

Euskadin, 2001 eta 2009 urteen artean hezkuntzari eskainitako guztizko gastu publikoaren ehunekoa % 14 ingurukoa izan da eta 2 puntu egin du behera 2009-2014 aldian. Hezkuntzan, aurrekontu-partida handieneko urtea 2001. urtea izan zen (% 14,4) eta aurrekontu-partida txikieneko 2013. urtea izan zen (% 11,5).

Hezkuntzara bideratutako gastu publikoaren guztizkotik, ohiko gastuari dagokiona % 94 inguruan kokatzen da 2001-2014 aldian. Funtzioen<sup>1</sup> arabera, hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuak dira ohiko gastuaren guztizkoaren % 90 hezkuntzan. Jarraian, beste % 7 bideratzen da jarduera osagarrietara, % 1,4 etxekoek erositako liburu eta eskola-materialetara, beste % 1,4 hezkuntza-sistemaren administrazio orokorrera eta % 0,9 hezkuntza-ikerketa eta -berrikuntzara.

2001-2009 urteen artean, zuzeneko sektore instituzional finantzatzailearen arabera BPGd-rekin lotutako ohiko gastua, handitik txikira, honela banatzen da, gutxi gorabehera: administrazio publikoetan % 84, etxeetan % 12, sozietateetan % 3ren eta etxebizitzaren zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeetan % 0,7. Funtzio guztien artetik, hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzua da 2001. urtetik (% 91,86) 2014. urtera (% 87,76) pixkanaka behera egin duena. Aldiz, jarduera osagarrienak gora egin du: 2001ko % 4,86tik, 2014ko % 8,90era pasatu da.

Komunitate Autonomoen arabera, hezkuntzako gastu publikoa, 2016. urteko guztizko gastu publikoarekin lotuta, Euskadi (% 0,56) da hezkuntzan gastu gehien duen bosgarren komunitatea, Andaluzia, (% 1,62), Katalunia (% 1,31), Madril (% 1,03) eta Valentziaren (% 0,92) atzetik. Gastu gutxieneko komunitate autonomoak hauek dira: Errioxa (% 0,06), Kantabria (% 0,12) eta Nafarroa (% 0,13). 2005-2016 aldian, hezkuntzari zuzendutako guztizko gastu publikoaren ehunekoak behera egin du komunitate autonomo guztietan Andaluzian eta Murtzian izan ezik.

<sup>1</sup> EF.1. HEZKUNTZA- ETA PRESTAKUNTZA-ZERBITZUAK: Hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuak hezkuntza-sektorearen berezko jarduerak dira. Pertsonen ezagutza eta ahalmenak hobetzea dute helburu.

Hezkuntza- eta prestakuntza-jarduerak hezkuntza-mailen arabera sailka daitezke. Hezkuntza Kontuen Sistemak hartutako hezkuntza-mailen sailkapena Hezkuntzaren Espainiako Sailkapena (CNED) da, eta sailkapen hori, era berean, Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuan (ISCED-97) oinarrituta dago.

EF.2. JARDUERA OSAGARRIAK: Jarduera osagarriek ez dute hezte helburu. Hala ere, hezkuntza-erakundeek kudeatzen dituzte eta horiek emandako hezkuntza-zerbitzuen osagarri dira, bigarren mailako jarduera bilakatuz. Jarduera osagarri ohikoenak garraioa, jantokia eta bizilekua dira, baina eskola-osasuna edo ikasleentzako psikopedagogia-zerbitzuak ere sar daitezke kategoria honetan.

EF.3. ETXEGUNEEK EROSITAKO LIBURUAK ETA ESKOLA-MATERIALA: Kategoria honek etxeguneez erositako liburuak eta materiala soilik hartzen ditu barne; izan ere, ikastegiak erosten eta erabiltzen duten materiala eskainitako zerbitzuaren partetzat hartzen da.

EF.4. HEZKUNTZA-SISTEMAKO ADMINISTRAZIO OROKORRA: Hezkuntza-sistemaren administrazio orokorrak kapitulu berezia du sailkapen funtzionalean, kontuan hartuta hezkuntza-zerbitzuak eta horien gastuak hezkuntza-zerbitzuen sailkapeneko kategorietan sartzen saiatzeak ekarriko lituzkeen arazoak.

EF. 5. IKERKETA ETA HEZKUNTZA ERABERRITZEA: Hezkuntzaren Kontuen Sistemaren azken kategoria honek material kurrikularra prestatzeko ikerketa-jarduerak eta hezkuntza eraberritzea jasotzen ditu, bai eta irakasleen prestakuntza zientifiko-didaktikora zuzendutako irakaskuntzako eta pedagogiko metodoak hobetzea ere.



## B2

### Heziketako gastu publikoa, guztizko gastu publikoaren ehuneko bezala.

HEZKUNTZAKO  
ADIERAZLEEN  
EUSKAL SISTEMA



Hain zuzen ere, horietan gora egin du % 0,05 eta % 0,1 hurrenez hurren. Euskadin, aldi horretan bertan, % 0,02 egin du behera. Extremadura, Balear Uharteak, Kantabria eta Errioxa balio berberetan mantendu dira.

2014. urtean guztizko gastu publikoarekin alderatuta, hezkuntzan gastu publikoaren ehunekorik altueneko Europar Batasuneko herrialdea Malta (% 14,6) izan zen eta gasturik gutxieneko herrialdeak Italia eta Errumania izan ziren, biak % 8rekin. Urte horretan bertan, Euskadi (% 12,8) Europar Batasuneko Herrialdeen (% 10,5) eta Espainiakoen (% 9,3) batez bestekoaren gainetik kokatzen da. 2011. eta 2014. urteen artean hezkuntzan gastu publikoaren bilakaera aztertu ostean, ondorioztatzen da datuak dituzten Europar Batasuneko herrialdeen batez bestekoak % 0,3 egin zuela behera, eta Espainian % 1,2. Aldiz, Euskadin, gastuak % 0,8 egin zuen gora.



# B2

## Heziketako gastu publikoa, guztizko gastu publikoaren ehuneko bezala.

HEZKUNTZAKO  
ADIERAZLEEN  
EUSKAL SISTEMA





### B2.1 taula eta grafikoak:

Hezkuntzako gastu publikoaren bilakaera, guztizko gastu publikoaren ehuneko bezala. Milaka eurotan. Euskadi.

	2001	2003	2005	2007	2009	2011	2012	2013	2014
Gastu publikoa, orotara <sup>(1)</sup>	14.872.804	16.932.496	18.898.115	22.151.805	26.527.345	26.876.351	26.402.390	25.792.338	26.290.650
Hezkuntzako gastu orotara <sup>(2)</sup> (milaka eurotan)	2.145.456	2.386.655	2.660.981	3.087.414	3.597.393	3.220.213	3.344.668	2.978.747	3.363.140
Hezkuntzako gastua, guztizko gastu publikoaren ehunekotan emanda	14,4	14,1	14,1	13,9	13,6	12,0	12,7	11,5	12,8

(1) Gastu publikoa, orotara: Administrazio Publikoetako finantza arlokoak ez diren enpleguak (EKS2010).

(2) Hezkuntza-erakundeetan egindako gastu publikoa, etxebizitzetara eta erakunde pribatuetara bideratutako laguntzak barne (milaka euro).



Iturria: EUSTAT. EUSTATEko datuetatik abiatuta, bertan eginda.



# B2

## Heziketako gastu publikoa, guztizko gastu publikoaren ehuneko bezala.


HEZKUNTZAKO  
ADIERAZLEEN  
EUSKAL SISTEMA



### B2.2 taula eta grafikoa:

Hezkuntzako guztizko gastuaren bilakaera funtzioen arabera Euskadin. (Ehunekoak).

	2001	2003	2005	2007	2009	2012	2014 (P)
<b>Hezkuntzako guztizko gastua (milaka euro)</b>	<b>2.145.456</b>	<b>2.386.655</b>	<b>2.660.981</b>	<b>3.087.414</b>	<b>3.597.393</b>	<b>3.344.668</b>	<b>3.363.140</b>
<b>Hezkuntzako guztizko gastu arrunta</b>	<b>93,35</b>	<b>93,80</b>	<b>92,99</b>	<b>94,43</b>	<b>91,88</b>	<b>94,31</b>	<b>96,04</b>
Heziketa eta hezigarriak zerbitzuak	91,86	90,84	90,66	89,16	88,80	87,87	87,76
Jarduera osagarriak	4,68	5,50	5,93	6,51	7,46	8,66	8,90
Liburuak eta eskolako materiala, etxeguneez erositakoa	1,28	1,27	1,14	1,70	1,58	1,51	1,38
Irakaskuntza Sistemaren Administrazio Orokorra	1,39	1,57	1,49	1,69	1,16	1,07	1,13
Irakaskuntzako ikerketa eta berrikuntza	0,79	0,83	0,77	0,92	1,00	0,89	0,83
<b>Kapital Eraketa Gordina irakaskuntzako erakundeetan</b>	<b>6,65</b>	<b>6,20</b>	<b>7,01</b>	<b>5,57</b>	<b>8,12</b>	<b>5,69</b>	<b>3,96</b>




Ituria: EUSTAT. Hezkuntzaren kontua.



### B2.3 taula eta grafikoa:

Hezkuntzako gastu publikoaren bilakaera, guztizko gastu publikoarekin alderatuta (finantza-atalak barne) Komunitate Autonomoetan. Ehunekoak.

	2000	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
<b>Komunitate Autonomoetako Hezkuntza Administrazioak</b>	<b>8,98</b>	<b>9,13</b>	<b>8,80</b>	<b>8,55</b>	<b>7,69</b>	<b>8,11</b>	<b>8,07</b>	<b>8,27</b>	<b>8,45</b>
Andaluzia	1,55	1,57	1,63	1,60	1,49	1,56	1,55	1,58	1,62
Aragoi	0,26	0,25	0,24	0,23	0,21	0,23	0,22	0,23	0,24
Asturias	0,23	0,22	0,18	0,17	0,16	0,17	0,17	0,17	0,17
Balears (Illes)	0,16	0,18	0,18	0,18	0,15	0,16	0,16	0,17	0,18
Kanariak	0,47	0,42	0,35	0,32	0,30	0,32	0,33	0,33	0,34
Kantabria	0,12	0,12	0,12	0,12	0,11	0,11	0,12	0,12	0,12
Gaztela eta Leon	0,58	0,56	0,46	0,44	0,41	0,43	0,43	0,44	0,45
Gaztela-Mantxa	0,35	0,40	0,41	0,43	0,32	0,32	0,32	0,33	0,33
Katalunia	1,29	1,40	1,39	1,34	1,18	1,23	1,20	1,28	1,31
Valentziako Erk.	0,92	0,99	0,98	0,92	0,82	0,89	0,89	0,89	0,92
Extremadura	0,23	0,22	0,21	0,21	0,18	0,21	0,21	0,22	0,22
Galizia	0,62	0,55	0,52	0,49	0,45	0,48	0,47	0,48	0,50
Madril Erk.	1,13	1,21	1,07	1,06	0,95	1,02	1,00	1,02	1,03
Murtzia	0,27	0,27	0,30	0,29	0,26	0,27	0,27	0,28	0,28
Nafarroa	0,15	0,14	0,14	0,13	0,11	0,12	0,13	0,13	0,13
<b>Euskadi</b>	<b>0,60</b>	<b>0,58</b>	<b>0,56</b>	<b>0,56</b>	<b>0,52</b>	<b>0,53</b>	<b>0,55</b>	<b>0,55</b>	<b>0,56</b>
Errioxa	0,06	0,06	0,05	0,05	0,05	0,05	0,05	0,06	0,06



Handienetik txikienera "2016. urtea" irizpidearen arabera.

Ituria : Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa: Hezkuntzako Gastu Publikoaren Estatistika.





### B2.4 taula:

Hezkuntzako guztizko gastu publikoaren bilakaera gastu publiko osoaren %tan emanda, hezkuntzako maila guztietan (Haur Hezkuntza izan ezik), Europar Batasuneko 28 herrialdeetan.

	2011	2012	2013	2014	2015
<b>EB (28 herrialde)</b>	<b>10,8 e</b>	<b>10,4 d</b>	<b>:</b>	<b>10,5 d</b>	<b>10,6 d</b>
Belgika	12,2 d	11,5	11,7	11,8	11,9
Bulgaria	10,7	10,3	11,0	10,0	9,7
Txekiar Errepublika	10,4	9,7	9,8	9,1	9,1
Danimarka	15,2 d	:	: d	:	:
Alemania	11,0	10,5	10,3	10,4	10,3
Estonia	13,7	11,9 d	12,6 d	: d	: d
Irlanda	13,1	14,5	13,6	13,0	13,1
Grezia	:	6,6 d	5,7 d	7,1 d	6,8 d
<b>Espainia</b>	<b>10,5</b>	<b>9,1</b>	<b>9,4</b>	<b>9,3</b>	<b>9,5</b>
Frantzia	10,2	9,6	9,7 d	9,7	9,7
Kroazia	8,7	:	:	:	:
Italia	8,6	8,0	8,2	8,0	8,1
Zipre	17,0 d	14,6	15,4	13,2	15,8
Letonia	12,9	17,7	13,3	14,1	14,4
Lituania	13,4	13,4 d	: d	12,6	11,7
Luxenburgo	:	10,0	:	9,6	9,4
Hungaria	9,4	8,3	8,2	: d	8,5 e
Malta	19,3	15,2 p	15,6 p	14,6 p	13,1
Herbehere	11,9	11,7	12,2	12,0	12,0
Austria	11,4	10,6	11,0	10,3	10,5
Polonia	11,4	11,6	11,7	11,6 d	11,6
Portugal	10,7 d	: d	11,0	9,7 d	9,9 d
Errumania	7,8	7,2	7,7	8,0	7,6
Eslovenia	11,4	11,3	8,5	10,0	9,6
Eslovakia	10,4 d	8,0	10,6	9,8	10,1
Finlandia	12,3	12,6 d	12,3	:	11,9
Suedia	13,3	13,8	14,1	13,9	14,0
Erresuma Batua	12,1 d	12,7	12,8	13,1	13,1 b
<b>Euskadi*</b>	<b>12,0</b>	<b>12,7</b>	<b>11,5</b>	<b>12,8</b>	

(:) Datu falta, (b) Segidaren haustura, (d) Definizio desberdina, (e) Balio zenbatetsia y (p) Behin behineko datua.  
Euskadi\*: EUSTATEko datuetatik abiatuta bertan prestatutako datuak. Hezkuntza-erakundeetako gastu publikoa, etxebizitzetara eta erakunde pribatuetara bideratutako laguntzak barne (milaka euro).

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT (Hezkuntzaren gastua).



# B2


## Heziketako gastu publikoa, guztizko gastu publikoaren ehuneko bezala.

HEZKUNTZAKO  
ADIERAZLEEN  
EUSKAL SISTEMA



### B2.4 grafikoa:

Evolución del gasto público total en educación como porcentaje del gasto público total, para todos los niveles de la educación (exceptuando la Ed. Infantil) en los 28 países de la Unión Europea. 2011 eta 2014 urteak.



Handienetik txikienera "2014. urtea" irizpidearen arabera ordenatua.

Euskadi\*: EUSTATEko datuetatik abiatuta bertan prestatutako datuak. Hezkuntza-erakundeetako gastu publikoa, etxebizitzetara eta erakunde pribatuetara bideratutako laguntzak barne (milaka euro).

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT (Hezkuntzaren gastua).